
GERNIKA'KO TXIKIKETA

Doinua: Ama Birjina Erkudengoa I
Neurria: Zortziko handia (hg). Lau puntuko handia (ip)
Testuaren iturria: Inazio Eizmendi Basarri. 1992.
Nere bordatxotik. Auspoa. 73 or.



Iñaki Eizmendi *Basarri*
(1913 Errezil – 1999 Zarautz, Gipuzkoa)

1937ko apirilaren 26an Gernika (Bizkaia) bonbardatu zuten faxistek. Franco generalari agintea hartzen laguntzen ari ziren Alemaniako eta Italiako hegazkin naziek jaurti zituzten bonbak. Propio, merkatu eguna hautatu zuten, herritarrak erasotzeko. Hildakoak 2.000tik gora izan ziren eta etxeen %1 soilik gelditu zen zutik. Zutik iraun zuen gauza bakanetako bat, Gernikako arbola izan zen: Batzar Etxearen aurreko haritza zaharra, Euskal Herriko foruen edo legeen ikurra.

Bonbardaketa salatzeko Picasso margolariak "Gernika" koadroa sortu zuen.

Basarriren bertso sorta hau Joseba Tapia trikitilariak jaso zuen "Agur intxorta maite: 1936-37 gudako kantuak" CDan (2001 Gaztelupeko Hotsak), Sebastian Lizasok abestuta.


1 Mila ta bederatzirehun da
hogei ta **hamazazpia**
euskotarrentzat urte beltz, illun,
triste ta **negargarria**.
Hauts bihurturik utzi zutena
Gernika **zoragarria**
euskal reliki maitatuenak
gordetzen zitun **herria**.

2 Apirileko hilarekin zan
hogei ta **seigarrenean**
hain juxtu ere peri eguna
astelehen **arratsaldean**
kale-baserri, milaka anai
gizatasun **ederrean**
plaza inguruan aurkitzen ziran
lehengo ohitura **zaharrean**.

3 Kanpandorreko ezkilak hasi
ziran dinbili-**danbala**
goiko piztien motor burrunda
entzuna zan **berehala**
emakume ta ume gaixoak
kurrixka* **zeriotela**
heriotzari ihesi nahirik
nora jo ez **zekitela**.

4 Bertsoz nork esan bonba txar haien
indar gaiztozko **danbarra**?
Ez zuten behintzat osorik utzi
bizileku bat **bakarra**.
Ta dana xehetu zuten garaian
alde guztitik **sugarra**
errugabeko gixaxoentzat
horra hor azken **ederra**!

* ***kurrixka*** = *garrasi*



5 Bizi ziranak ihesten zuten
sutegi zakar **hartatik**
baina hegazkinak tiro ta tiro
etengabe **goietatik**
kristau gorputzak alde batetik
beso-buruak **bestetik**
odol gorrizko itxaso hartan
ez zan ikusten **besterik**.

6 Milatik gora igaro ziran
arnasa **utzitakoak**
ez jakin zenbat bizi guztiko
eri **gelditutakoak**.
Hoietatikan gehientsuenak
andrezko ta **umetxoak**
guda txar hortan erru galantik
izango zuten **gaixoak**!

7 Puska dituzte gure herri polit
apain eta **maitekorrak**
puska dituzte baserri txuri
gure kabi on, **xamurrak**.
Ta zirtzildurik* kaletan utzi
o, euskaldunen **hezurrak**
Alemanitik gu txikitzera
etorritako **maltzurrak**.

8 Basati gaizto, odolzaleak
atzerritatik **ekarten**
tokirik zoragarrienari
txikitu ta su **ematen**
hauts egindako gure Gernika
antsika dago **esaten**
Franco ta bere laguntzaileak
zein bihotz ona **daukaten**.

9 Ikusi zuten neurrigabeko
pekatua **zeukatela**
ikusi zuten hainbat kristau on
odolustu **zituztela**
ikusi zuten mundua kontra
jeikiko **zitzaietela**
eta orduan zabaldu zuten
gorriak* erre **zutela**.

10 Ez da, ez, alperrikako izan
hor ixuri dan **odola**
pentsa oraindik emaitz ederrak
ematekotan **dagola**.
Euskal gogoa armez ta indarrez
ezin hil leike **inola**
Gernika erre ziguten baina
zutinik dago **arbola**.

* ***zirtzildurik*** = *zarpaildurik*

* ***gorriak*** = *ezkertiarrak, errepublikarrak; herriak hautatuta agintean zeudenak*